



soilen emaitzak onak izan dira eta ABk eta EAk sostengatutako ekologisten zerrendarenak bikainak.

Baina goazen zehatzago ikustera egindako iruzkin orokor horien barrunbetan dagoena.

HB: Espainiako 100.000 boto haiek!

Iniziatiba Internazionalistak 137.000 boto lortzea asko da eta berriz erakusten du ezker abertzale historikoak bere esparru sendoa ondo finkatua duela. Ez dira boto asko HBk historikoki erakutsi izan duen indarra kontuan hartuta eta ez da legezkoa oraingo boto hauek HBk bere garaian lortutako haiekin erkatzea, baina erreferentzia gisa bederen erabili daitezke.

Ez dira konparagarriak, besteak beste orduz geroztik HB hark zatiketa bat izan duelako –Aralar– eta azken urteetan legez kanpo jardun behar izan duelako, beti ere beste sigla batzuk erabiliz, horrek dakarren etengabeko noraezarekin: orain nuloa, gero abstentzioa, hurrengoan EHAK, ANV... Boto kopuru aldetik, beraz, legez kanpoko ezker abertzaleak badu pozarren izateko motiborik.

Eta hala ere, ez du europarlamentaririk lortu, eta hori oso garrantzitsua zen Europako Legebiltzarra bozgorailu gisa erabiltzeko. HBn oraindik ere oso gogoan dituzte Txema Montero, Karmelo Landa eta Koldo Gorostiagaren garaiak. Oraingoan, gainera, garrantzi berezia izango luke Europan ordezkari bat izatea, Euskal Herrian hura ordezkatzan duten botoak legez kanpokoak direnean. Areago Estrasburgoko Auzitegiak ilegalizazioaz eman beharreko epaia aurten etorriko dela entzuten denean. Galdera ikur handia zegoen Iniziatibak Espainian lor zitzakeen botoen inguruan, eta aurreikuspenak ez direla bete esan liteke. Tasio Erkiñiak eta berarekin belaunaldi politikoa



Lehendakaritza lortu eta aparretan oraindik, PSE-EEK ondo eutsi die hauteskunde hauekako erronkei.

EAJren lidergoa...

Irabazle izanik ere emaitza txarrak dira jeltzaleentzat, badute zertaz kezkatu. Eta bai, berriz errepikatu behar da hauteskunde hauetan dagoen parte hartze eskasak errealitatea asko itxuraldatzen duela, baina zantzuak hor daude. Boto galeraz eta barne lidergoaz bereziki hausnartu beharko dute Sabin Etxean. Ibarretxeren hutsune larria betetzeko denbora badu EAJk, baina abertzaletasunean aurreikusten diren mugimenduekin, bere indar metaketa propioari ere heldu beharko dio. Hor kokatu behar dira egun batean bai eta hurrengoan ere bai Alkarbidekoei luzatutako keinuak.

Eta sendo jarraitzen duena PSE-EE da. Espainian krisiak kosk egin dio Zapaterori, baina EAeko sozialistek Patxi Lopezen agintaldi hasierako aparretan jarraitzen dute. Alderdia bere ilusioa ari da kanporatzen gizarteari begira eta hori bere botoemaileenganaino eramatea lortu du. Sasoi gogorragoak etorriko zaizkio, dena den, PPK hasieran honetan soka luzean utzi du, baina hori ez da horrela izango legealdi osoan.

PPk badu pozarren agertzeko arrazoirik Espainian eta, beraz, zeharka Euskal Herrian, baina bere emaitzak ez dira onak EAEn. Bestelako irakurketa egin daiteke Nafarroan, zatiketaren ondoren ere 75.000 boto lortu dituztelako (2004an 90.000). Kanpainen eskua

ametsetan bezala...


Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Europako Parlamentuko eserleku banaketa berria




* UEN (Nazioen Europaren Aldeko Batasuna)

**GUE/NGL (Europar Ezker Bateratua)

Iturria: Europako Parlamentua

Parlamentuaren aurreko osaketa



Iturria: Gara

Emaitzak Euskal Herrian

	Bozka kopurua	Portzentajea
PSOE	263.153	%25,68
EAJ	210.658	%20,56
PP	192.101	%18,75
II-SP	138.313	%13,50
EA-Aralar	54.961	%5,36
UMP	26.179	%2,61
EB	19.866	%1,94
UPyD	15.120	%1,48
E. Ecologie	14.054	%1,37
PSF	12.238	%1,19
MoDem	9.270	%0,90
EHA	5.602	%0,55
FG	4.610	%0,45
NPA	3.991	%0,39

Abstentzioa: % 57,63

Beltzez, Hego Euskal Herrian aurkeztu diren alderdiak; **gorriz**, Ipar Euskal Herrikoak. Portzentajek Euskal Herri osoan emandako bozka kopuruaren araberrakoak dira.

baino gehiago luzatu dien Yolanda Barcinari bederen eman beharko dizkiote eskerrak.

Eta EA eta Aralar zer? Helburua bete dute, parlamentaria, baina hori bozkatu aurretik ere lortua zuten. Elkarrekin landutako adostasunak baino, EAEko azken hauteskundeetan Aralarren emaitza onak eta ERCren hautuak jarri dituzte elkarrekin. Gaitza zen uzta horretatik fruitu egokirik jasotzea. Seguruenik Iniziatiba Internazionalistak ere eraman ditu saski horretara joan zitezkeen boto batzuk, batez ere Nafarroan. Zeresanik ez, EAren egoera larriak ere ez die mesederik egin. Era- gin txikiko hauteskundeak dira hauek, baina bere txikian NaBai da ukitua atera dena. Eta txikiagoen artean, Ezker Batuko Hegoaldeko bi adarrak gero eta larriago egoteko moduan dira: EAEn 13.121 boto eta Nafarroan 6.719.

Bazen behin polo soberanista bat...

Batek daki udazkenean zer izango den, baina Arnaldo Otegi ondo berotu ditu bloke burujabearen kontuok. Ez berak bakarrik, EAko zuzendaritzak ere, datarik aipatu gabe baina ezkerreko abertzaleen indar metaketaren aldeko apustu argia egiten du kongresurako presatutako ponentzia politikoan.

EAJk aurkako mugimendu gisa bizi du balizko metaketa hori eta Aralarrek ere mesfidantzaz begiratzen dio, bai ENAMEko ezker abertzaleak izan dezakeen protagonismoagatik eta baita bloke horrek hauteskundeen aurrean izan behar duen izaeragatik ere. Hesi bat gehiago ireki da polo soberanista ospetsuaren bidean. Garrantzitsuena airean da oraindik, baina horrek gehiago du zerikusirik ETaren jarrerarekin. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea